

**SOR
KUN
TZA**

BEKAK 2021

SORKUNTZA BEKAK 2021

MEMORIA

SORKUNTZA BEKAK

1- Zorione Mendez Martin

2- Joseba Agirrezabalaga
eta Alaitz Alberdi

3- Intza Larrañaga Etxeberria
eta Sara Etxeberria Zapirain

4- Maider Azurmendi Arotzena

5- Maialen Akizu Bidegain

6- Aitor Goenaga Alberdi

SORKUNTZA EGONALDIAK

7- Gari Arambarri Arregi

8- Mikel Ruiz Pejenaute

Zorione Mendez Martin


Orio, 1988

HABITAT

“Etxe/leku/espazioaren inguruko ikerketa honek ezbaian jarri nahi ditu egoera eta sentipenak. Nitasunetik gauzatua, emakume zuri gisa. Happening/ performance bat (gorputza kanal gisa) ikuspuntu feminista batetik. Zerbait intimoa eta aldi berean ikuslea partehartzera eramango duena. Identifikatuta sentituko dena hein handi batean.

Eroso eta deserosoak diren egoerak biziz gorputzean. Kritika sozial etiko eta morala gure pentsamenduak nahasiz. Norberaren habitata, hein handi batean testuinguruaren baitan dago. Pribilegio, energia, zoria eta beste zenbait faktoreek baldintzatua. Batzuk eroso bizi gara, gustatzen ez zaizkigun ereduak muzin eginez. Beste albo batera begiratuz, existitzen ez den zerbaiten moduan.

Hain gertu eta urrunekoa den zerbait da habitat desberdinak. Kosta egiten zaigu besteen azalean jartzea”.



Joseba Agirrezabalaga

Azpeitia, 1982


Alaitz Alberdi


Azpeitia, 1982

PUZLE

Alaitz Alberdi eta Joseba Agirrezabalaga gara Split. Puzzlearen ideiatik abiatuz, irudi zatiekin lanean gabiltza forma berriak eraikiz.

Marraskia beste forma batzuetan erakusteko nahia dago gure lanean. Euskarri eta teknika ezberdinak erabiltzen ditugu horretarako. Obra grafikoa modu eskultorikoago batean errepresentatzeko ikerketan gabiltza, teknikaren zehaztasuna edo perfekzioa alde batera utzita.





Intza Larrañaga Etxeberria

Azpeitia, 2000

Sara Etxeberria Zapirain

Lasarte-Oria, 2001

DAMUAK

Ideia elkarketa, nahasketa eta batuketaren emaitza da Damuak. Bi emakume* elkartu eta bideak beste hainbatekin elkarlanean jarduteko aukera eman digu.

Sortzaile eta artista txikiei ikusgarritasuna emateko leihoa zabaldu nahi izan dugu. Ikuspuntu artistiko zein sozial batetik gure interesekoak diren gaiak landuz. Barruan sentitzen dugun "damu" horren isla. Egin ez dugunarena edo etorkizun hurbil edo urrun batean egingo dugunarena. Bizitzako egoera ezberdinek sortzen diguten damua oinarri hartuta proiektu plastiko bisual baten garapena da. Damututako eta mututako damen ahotsari oihartzun emango dion proiektua.

Bidea hasi besterik ez da egin; sormen, irudi, hitz eta artea aurkitzeko espazioa duzue Damuak.



Laura Perez



Maidier Azurmendi Arotzena


Azpeitia, 1975

ARTEZ & ARTILEZ

Artea & Artilez proiektua gorpuzteko prozesuan zehar, material gisara, artileak agindu du. Nire lanean geroz eta presentzia handiagoa hartzen ari den materiala, hain zuzen.

Proiektu honen aurretik hasia nintzen, jada, artilearekin lanean eskultura pieza batzuetan, lotsati. Orain ordea, lan prozesuak berak bultzatuta, lehen gai hau nola landu ikertzen hasi naiz. Sorkuntza bekak iraun duen denbora tartean artilea tinte naturalekin koloreztatu dut; feltro oihalak egin ditut; txirikordatu dut, egitura luze batzuek eraiki arte; goruarekin artilea hari bihurtu dut. Eraitza horiek guztiekin elementu eskultorikoak sortu ditut. Formak eratzeko materiala prestatzen denbora luzez aritu naiz: artilea eskuz sailkatzen, garbitzen, tintatzen... Pixkana, artilea ezagutzen joan naiz, zerbait hurbila bilakatu da. Zuntz natural horrekiko nolabaiteko atxikimendua garatu dut: koloreak, testurak, usainak, itxurak berak... ikaragarri erakartzen nau.

Posibilitatez beteriko elementu da. Bere medio, nire egiteko moduan beste bide batzuk zabaltzen ari dira.



Aitor Goenaga Alberdi

Azkoitia, 1985

BASOA

Ume bat besterik ez naiz baso baten erdian. Ume bakarti bat, ume alai bat. Baina ez pentsa bakarrik nagoenik, naiz eta ni izan basoan ume bakarra. Zuhaitzek zaintzen, goxatzen eta babesten naute. Haiek dira nire ama, amona, arreba. Basoak emakumezko direla sentitzen dut.

Basora sartzen naizen bakoitzean, amama zenaren etxera sartzen naiz. Janari goxo haren inguruan sortzen zen komunitate baketsura narama. Han, errespetuz sartuz gero, beti naiz ongi etorria, beti dago tokia. Hitzik gabeko ongi etorria, besorik gabeko besarkada. Euria ari duenean, estalkia; beroa egiten duenean, freskura. Haizearen aurkako babesa.



Maialen Akizu Bidegain

Arama, 1996

IPUIN BILDUMA

Covid-19aren testuinguruan kokatutako errelato bilduma da honakoa. Denboraldi honek sortu dizkigun beldur, forma eta sinesmenei literaturatik begiratu nahi izan zaie, batik bat, gizakiak izan dituen irrazionalitateetan arreta jarritz. Egunerokotasunean kokatutako istorio eta pertsonaiak dira eta denek izango dute “kontuz!” abisua itzala nola jarraika. Badira pentsatzen gaituzten gauzak, eta badira gauzatzen gaituzten pentsamenduak. Segurtasun eta normalitatearen nahia ezin ekinda, arrarotasuna eta ez-jakintasuna gorpuzten ondotuako istorioak dira honakoak.

Luzea da formaren eta edukiaren arteko debatea. Mendebaldearen pentsamoldearen erroa da dikotomiak elkarren kontrako gisa ulertzea. Baina, akaso, 2021ean kontzertu batean esandako hitzek ere segurtasun neurriak bete behar dituzte; edo, tokatzen denean, musukoa jarri behar dute; edo, “enplan joaten gara sobrelamartxa” proposamenak eskuak hidrogelarekin garbitzean, “ogitartekoak eska ditzakegu eta kale-edanean ibili” esanez bukatzen du larunbateko plana.



SORKUNTZA EGONALDIAK

Mikel Ruiz Pejenaute


Zumarraga, 1990

HARATAGO


Aurkezten dudan serigrafia multzoa, Azpeitiko Udalak 2021ean banatutako sormen bekei esker gauzatua izan da, Dinamoan egindako egonaldiaren barruan. Estanda hauek, “Haratago” proiektuaren azpian batzen dira. Izan ere, azken lau urteetan teknika honen bidez gauzatutako lan ildoaren jarraipen plastiko bat da: esperimentazioa ardatz harturik, iruditegi pertsonal baten eraikuntzan sakontzen duen prozesua hain zuzen.

Serigrafiako tailer profesional batek eman ditzakeen baliabideak aprobetxatuz, irudi mota berri batzuk eraikitza eraman ninduen; egite horretan, erronka handiagoak ebatziz: motibo bakarreko irudi osoak formatu handietan (momentu horretara arte bezala zatika sortutakoak ez zirenak); serie zabalagoetan lan egiteko aukera; “testuaren” –edo horri erreferentzia egin diezaiokeen beste idazketa eta kodifikazio sistemen– eta irudiaren arteko konbinaketak, Eslogan edota Branding-naren antzerako estrategiak erabiliz, hauek izan dezaketen karga semantikoa galduz, irudiaren kodeetara gerturatuz. Ikonografia eta sinbologia kolektiboen eta Logomania-ren inguruko estrategiak lantzeko ere, aukera izan dut.

Display honen izenburua, nire amonak kontatutako istorio batetik ateratako esaldia du oinarri. Entzun bezain pronto, irudi bezala etorri zitzaidan burura: “...untxi larrua poxpoloen truke”.







Gari Arambarri Arregi

Azkoitia, 1997




HATZ BAT LUZATZEA DESIRATZEA DA

Nire proiektuaren abiapuntua eskalada eta afektuak dira. Alde batetik, eskaladatik, praktikatzerakoan beharrezkoak diren trebetasunak eta materialak interesatzen zaizkit.

Materialetan, soka eta mosketoiekin egin dut lan batez ere, eta abilezien inguruan, oreka eta arintasunarekin topatu naiz. Era berean, tentsioa proiektu osoaren zehar agertu da galdera hau erantzuten saiatzen nintzen bitartean: nola espresatzen dugu gure desira? Zer nolako keinuak egiten dugu gure gorputzarekin? Eskaladan, pertsona batek zerbaiti heltzeko besoa luzatzerakoan egiten duen keinuan oinarritu naiz desira hau materialtasunera eramateko asmoz. Tentsio bat sortzen da afektuen barruan, oreka perfektua sortzearen nahian eta erorketa ekiditearen saiakeran.


Proiektua hasieran bideogintzara bideratuta bazegoen ere, egonaldiaren zehar materialak eskuz lantzeko eta fisikoki luzetzearen nolabaiteko beharra sentitu dut, eta nire afektuekin lotutako geruza eta bolumenekin esperimentatzeko ere.





Azpeitia
Denontzat

Kulturaz
Azpeitiko Kultur Kooperatiba


DINAMOIA
SORMEN GUNEA